



**2013KO APIRILAREN 18KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko apirilaren hemezortzian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai-zerrendan sartutako gaien eztabaidari ekiten zaio.

Albisu zinegotzia irten egiten da aretotik.

I.- ITURGAITZAGAKO ERROTONDA LANEN 7. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 7. obra-egiaztagiria luzatu du. Lanen 7. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HAMABI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOTakoa (12.536,58 €) da. Lan hauek GORAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, eta obra honen finantzaketa dela eta, azaldutako zalantzen inguruko argibideak eman ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen 7. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

II.- KANPANDEGIKO ERROTONDA LANEN 3. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 3. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 3. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA LAU MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMOTakoa (144.694,17 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.



Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpadegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 3. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Albisu zinegotzia bilkurara itzultzen da.

III.- MAILEGU ESKARIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko hirigintza garapena aurrera eramateko, udal elkarte den Lazkao Lantzen, S.A.k mailegua behar du garapen honen finantzaketarako. Hala ere, eta maileguaren dirua Lazkao Lantzen, S.A.rentzat baldin bada ere, eskatzailea udala bera izanda mailegu honen baldintzak askozaz ere abantailatsuagoak izanik, mailegua udalak berak eskatzea planteatzen da.

Mailegu hau hitzartzeko baldintzen inguruan hiru banketxeri eskatu zaie eskeintza eta jasotako hiru eskeintzak aztertu ondoren, udalarentzat abantailatsuen Banco SabadellGuipuzcoanorena dela ondorioztatzen da.

Hau horrela izanik, gaia aztertu ondoren eta ogasun batzorde informatzailearen proposamenez, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, eta beraz, udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- 2013ko aurrekontuaren udal-araua aldatzea hasierakoz onartzea, "udalak bere gain hartutako epe luzerako zorpetze eragiketengatik, edozein izanda ere horiek dokumentatzeko era, 2013ko abenduaren 31n gelditzen den zor bizia ezingo da 1.250.000 € eurotatik gorakoa izan" jarriz, lehen zorpetzea 0 euro izango zela jartzen zuen lekuan.

2.- Banco SabadellGuipuzcoano banketxearekin ondorengo ezaugarriak dituen mailegua hitzartzea hasieerakoz onartzea:

- Helburua: Inbertsioak finantzatzea
- Entitate finantzarioa: BANCO SABADELLGUIPUZCOANO
- Zenbatekoa: 1.250.000
- Amortizazio epea: 3,5 + gabealdiko epea: 1,5 = guztira 5 urte
- Interes tasa: EURIBOR + 4,00
- Konputatzeko interes tasa (*): 4,208
- Ordaintzeko maiztasuna: Hilabetekoa

3.- Erabaki hauek jendaurrean ikusgai jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan, 15 eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, erabakiak behin betiko onartutzat joko dira espreski hartutako akordio berriren beharrik gabe.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena eskatzea, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza, Gipuzkoako Udal Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauak 52. artikuluan jasotakoaren arabera.



5 - Alkateari ahalmena ematea kontratua eta erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dienez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Estensoro zinegotziak (EAJ) larrialdietarako laguntzetako gehikuntza hori Eusko Jaurlaritzak ordainduko al duen galdetzen du.

Goenaga zinegotziak, ogasun batzordearen presidente gisa, erantzuten dio ezetz, udalak ez duela behintzat horrelakorik aurreikusten.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	61.000,00 €
IV	Transferentzia arruntak	50.000,00 €
VIII	Finantza aktiboak	1.250.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.361.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
------------	-------	------------



VIII	Finantza aktiboak	111.000,00 €
IX	Finantza pasiboak	1.250.000,00 €
GUZTIRA		1.361.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- KIROL ZERBITZUEN KONTRATAZIOA.-

Lazkaoko Joxemiel Barandiaran Udal Kirolegiko sorospen, kirol-begiraleak eta sarbi-deen harrera-kontrol zerbitzuen zeharkako kudeaketa lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, eta kirole-tako batzordeak informatua izan delarik, bere onarpenera jartzen da udal osoko bilkura honen aurrean.

Serna zinegotziak (PSE-EE) baldintza teknikoko pleguan barneratutako klausula batekin bere ezadostasuna azaltzen du eta kirole-tako batzordearen presidentea den zinegotziak klausula hori horrela zergaitik jarri den adierazten du. Serna zinegotziak esaten du klausula horrekiko bere desadostasuna mantendu egiten duela.

Honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

LEHENA.- Berariazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Kontratazio espedientea onartu, aurrekontuaren dagozkien partiden gain gas-tua onartu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea; Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzaileren Profilean iragarkia argitaratuz.

VI.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du gai hau gizarte zerbitzuetako batzordean ez dela aztertu eta hori horrela gaia mahai gainean uztea eskatzen du.

Alkateak ontzat ematen du eskaria eta gaia mahai gainean gelditzen da.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hemezortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziur-tzen dudalarik.

